

euskadi.net



es

- [Agenda](#)
- [Edukiak](#)
- [Ezagutza](#)
- [Albisteak](#)
- [Harpidetu](#)
- [Harremanetarako](#)
- [Kultur Baliabideen Direktorioa](#)

[Hasiera](#) » [Agenda](#) » "Urtaroko laborategia" + "Oroimenaren zuhai...

[Bilaketa aurreratua](#)

"Urtaroko laborategia" + "Oroimenaren zuhaitza"

Ekitaldi mota: Jardunaldiak

Data: 2011-05-18

Ordua/Ordutegia: 11:30

Lekua: Sagardoetxea. Sagardoaren Museoa. Kale Nagusia, 48 , Astigarraga (Gipuzkoa)

Prezioa: Doan

Maiatzaren 18an XXXIII. Museoen Nazioarteko Eguna ospatuko da "Museoak eta Memoria" gaitzat hartuta eta Sagardoetxean urtaro bakoitzerako sorturiko laborategiaren aurkezpena burutuko dugu. Sagardoetxeak urtaro bakoitzerako laborategia garatu du, bisitarietara sagardoaren elaborazio prozesuko sekretu guztiak erakusteko. Honela, maiatzaren 18an eta Museoen Nazioarteko Egunarekin bat eginez, laborategi honen aurkezpena burutuko dute Eugenio Elorza, Aitor Etxeandia, Fabienne Feutry eta Josu Osa adituek Sagardoetxean goizeko 11:30etan eta urte sasoi bakoitzean garatu beharreko lanak azalduko dizkigute:

- Udaberrian: Polinizazioa eta erleen mundua.
- Udaran: Ilargiaren eragina udako inausketan.
- Udazkenean: Sagarraren heldutasuna eta sagardoaren eta sagar muztioaren analisisa.
- Neguan: Landaketa, txertaketak eta inausketa.

Museoen Nazioarteko Egunerako, Sagardoetxeatik "Oroimenaren zuhaitza" jarduera berezia antolatu dugu bisitari guztientzat. Egun horretan museora bertaraten direnek, sagardoaren elaborazio prozesu guztia ezagutzeko aukera izango dute urtaroko bakoitzerako laborategi honen bitartez. Honela, urte sasoi bakoitzean (udaberria, udara, udazkena eta negua) garatu beharreko lanak eta sagardoaren elaborazio prozesuko sekretu guztiak ezagutzeko aukera izango dute bisitariak. Bisitaren amaieran, bisitari bakoitzak bisita hoberen identifikatzen duen eta bere memorian gordeko duen hitza hosto batean idatziko du eta bisitari guztien artean eginiko ekarpenekin, Sagardoetxeako "Oroimenaren zuhaitza" sortuko dugu. Bisitak egun osoan zehar izango dira, sagardo dastaketa egongo da eta museorako sarrera doakoa izango da.

Webgunea: [Sagardoetxea. Sagardoaren Museoa](#)

Telefonoa: 943550575



Mapako datuak: ©2011 Tele Atlas -

Iturria: [Sagardoetxea](#)

Edukiak partekatu:



Kategoriak: [Arlo berriak](#), [Diseinua](#), [Bestelakoak](#), [Museoak](#)

Etiketak: [astigarraga](#), [eragileak_museoak](#), [gipuzkoa](#), [kultur zentroak](#), [museoa](#), [sagardoetxea](#), [sagardoaren museoa](#)